

## OLER

[IRU TORREAK, LUZE TA GARBI]

Iru torreak, luze ta garbi,  
arkaitzen urdin ganean  
zuri ta zinbel ta izarrei buruz,  
illargitako aidean.

T'ez dakit zertaz mintzatuz  
t'ez dakit zer gogoratzuz,  
luze ta garbi, ari diran ain  
oparo gaua zoratuz.

Ta arkaitz urdiñen ganean,  
iru torreak, zuri ta zinbel,  
illargitako aidean.

Ta illargitako aidean,  
gauari jaulkiz ederra,  
pianu baten lore aratzak  
ta uraren otsa eta, noizik bein,  
txitxarren kantu leberra.

T'ez dakit zertaz mintzatuz  
t'ez dakit zer gogoratzuz,  
leber eta aratz, ari diran ain  
oparo gaua zoratuz.

Ta arkaitzen urdin ganean,  
argi ta eder, pianu baten  
lore aratzak aidean.

Ta aidean eta abarrean,  
t'ezin igarri batean,  
oroi liraken argidurazko  
ta arazdurazko nastean,  
susmo ta amesen alako zeren  
argidurazko ta arazdurazko  
alako zerak, denean.

T'ez dakit zertaz mintzatuz  
t'ez dakit zer gogoratzuz  
susmo ta amesak ari diran ain  
oparo gaua zoratuz.

Ai, zer gogoak!

.....

Arkaitzen urdin ganean,  
oroi ta amesen alako zerak  
illargitako aidean.